

KOSTU EGITURA

Kostu desberdinak daude: kostu finkoak, kostu aldagarriak, eskala-ekonomiak (deskontuak, ekoizpen handiagogatik) eta hedapen-ekonomiak (baliabide berak produktu bat baino gehiago ekoizteko). Baina gastu horietatik, gure proiektuak ez ditu gastu gehiegi izango.

Sortuko dugun aplikazioa, ordaindu behar ez den plataforma batetik sortuko dugu, beraz, aplikazioaren ekoizpenean ez dugu gasturik izango. Izango ditugun kostu bakarrak, gure aplikazioa ezagutarazteko egingo ditugun publizitatearenak izango dira. Kartel moduko batzuk sortuko ditugu, eta horiek inprimatzeak sortuko digun kostua izango dugu. Kostu hau, aldagarria izango da, kartela koloretan izan edo txuri beltzean, eta tamainaren arabera, ordaindu beharrekoa aldatu egingo baita. Horrez gain, hitzaldi batzuk emango ditugu gure aplikazioari buruz azalpen batzuk emanez, eta azalpen horiek emateko, udaletxeari diru kopuru bat ordainduko genioke, herriko instalazioak uzteagatik. Kostu hau finkoa izango litzateke, kostu zehatza izango baita.